*Kristauon zerbitzu eta bizimodua lan-koadernoa*ren erreferentziak

MAIATZAK 3-9

ALTXORRAK JAINKOAREN HITZEAN | ZENBAKIAK 27-29

«Imitatu Jehobaren inpartzialtasuna»

Zenbakiak 27:1-4: Mahla, Noa, Hogla, Milka eta Tirtza Tzelofhaden alabak ziren –Tzelofhad Joseren seme Manasesen leinukoa zen, Heferren semea; hau Galaadena eta hau Manasesen seme Makirrena–. Bost emakumeek aurkeztu **2** eta Moisesen, Eleazar apaizaren, arduradunen eta elkarte osoaren aurrean, elkarketa-etxolaren sarreran, esan zuten: **3** «Gure aita basamortuan hil zen; ez zen Koreren taldeko partaide izan, ezta elkartu ere haiekin Jaunaren aurka; bere bekatuagatik soilik hil zen. Ez zuen semerik utzi. **4** Desagertu egin behar al du horregatik gure aitaren izenak beraren senitartetik? Emaguzu, beraz, guri lur-jabetza gure aitaren anaiei bezala».

***w13* 6/15 10-11 ¶14**
Estimatu Jehobaren ezaugarriak

14 Bost ahizpak Moisesengana joan eta eskatu zioten: «Desagertu egin behar al du horregatik gure aitaren izenak beraren senitartetik? Emaguzu, beraz, guri lur-jabetza gure aitaren anaiei bezala». Legearekin salbuespenik ezin zuela egin esan al zien Moisesek? Ez, «Moisesek Jaunari aurkeztu zion arazoa» (Zen 27:2-5). Zein izan zen erantzuna? Jehobak esan zion Moisesi: «Arrazoia dute Tzelofhaden alabek; lurondarea emango diezu jabetzan, beraien aitaren anaiei bezala: aitaren ondarea emango diezu». Baina Jehoba harantzago joan zen. Salbuespena lege bihurtu zuen Moisesi honakoa esanez: «Gizon bat semerik gabe hiltzen bada, haren ondarea alabaren eskuetara pasatuko da» (Zen 27:6-8; Jos 17:1-6). Handik aurrera, arazo berdina zuten emakumeak babestuta egongo ziren.

Zenbakiak 27:5-7: Moisesek Jaunari aurkeztu zion arazoa, **6** eta Jaunak erantzun: **7** «Arrazoia dute Tzelofhaden alabek; lurondarea emango diezu jabetzan, beraien aitaren anaiei bezala: aitaren ondarea emango diezu.

***w13* 6/15 11 ¶15**
Estimatu Jehobaren ezaugarriak

15 A zer inpartzialtasuna erakutsi zuen erabaki honek! Nola tratatu zituen Jehobak babesik gabe zeuden emakume hauek? Duintasunez, egoera hobea zuten israeldarrak tratatu zituen bezala (68. Salmoa 6 [68:5, *NW*]). Bibliako beste pasarte askok bezala, honek egia bat erakusten digu: Jehobak bere zerbitzari guztiak inpartzialtasunez tratatzen dituela (1 Sm 16:1-13; Eg 10:30-35, 44-48).

Zenbakiak 27:8-11: Eta esan israeldarrei: Gizon bat semerik gabe hiltzen bada, haren ondarea alabaren eskuetara pasatuko da. **9** Alabarik ere ez badu, beraren anaiei emango zaie ondarea. **10** Anaiarik ere ez badu, beraren aitaren anaiei emango zaie. **11** Eta osabarik ere ez badu, gainerako ahaideetatik hurbilenekoari emango zaio ondarea eta bera izango da jabe. Lege izango dute hau israeldarrek, nik, Jaunak, Moisesi agindutakoaren arabera».

***w13* 6/15 11 ¶16**
Estimatu Jehobaren ezaugarriak

16 Nola imitatu dezakegu Jehobaren inpartzialtasuna? Gogoratu dezagun inpartzialtasunak bi alderdi dituela. Besteak *inpartzialtasunez tratatzeko* beharrezkoa da

inpartzialak izatea. Noski, guztioi gustatzen zaigu irekiak eta inpartzialak garela pentsatzea. Baina, ziur ados egongo zarela gure sentimenduak modu zuzen batean aztertzea ez dela beti erraza izaten. Beraz, zer egin dezakegu besteek nola ikusten gaituzten jakiteko? Jesusek besteek berari buruz zuten ikuspuntua jakiteko, bere konfiantzazko lagunei galdetu zien: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?» (Mt 16:13, 14). Zergatik ez dugu Jesus imitatzen? Konfiantza duzun lagun bati inpartzialа zaren ala ez galdetu. Partzialа zarenaren arrastoren bat ikusten badizu, esaterako, arrazarengatik, gizamailarengatik edo maila ekonomikoarengatik, zer egin beharko zenuke? Egin otoitz Jehobari bihotzez. Erregutu iezaiozu zure jarrera aldatzen laguntzeko eta bera bezala inpartzialа izaten laguntzeko (Mt 7:7; Kol 3: 10, 11).

Irakaspen preziatuak

Zenbakiak 28:7: Lehenengo arkumearekin batera, litro eta erdi ardo eskainiko da isur-oparitzat; isur-oparia santutegian eskainiko zaio Jaunari.

Zenbakiak 28:14: Oparigaiei isur-opari hauek dagozkie: zekor bakoitzari hiru litro ardo, ahariari bi litro eta arkume bakoitzari litro eta erdi. Hori da hil guztien hasieran eskainiko den erre-oparia.

***it*-2 525-526**
Eskaintzak

Isur opariak. Isur-opariak beste opari gehiengoarekin batera eskaintzen ziren. Hauek, batez ere, israeldarrak promestutako lurraldean finkatu eta gero egiten zituzten (Zen 15:2, 5, 8-10). Ardoarekin egiten ziren eta aldarean isurtzen zuten (Zen 28: 7, 14; konparatu Ir 30:9; Zen 15:10). Paulok Filipoarrei honakoa idatzi zien: «Eta zuen sinesmenaren kultu-zerbitzua burutzeko nire bizia opari [“isur-opari”, *NW*] eskaini behar badut ere, pozik nago» (Flp 2:17). Hemen Paulok isur-oparia erabiltzen du anai-arreben alde bere bizia eskaintzeko prest zegoela erakusteko. Hil aurretik, Timoteori idatzi zion: «Ni neu, neure bizia opari [“isur-opari”, *NW*] eskaintzeko zorian nago; gainean dut mundu honetatik abiatzeko ordua» (2 Tm 4:6).

Biblia-irakurketa

Zenbakiak 28:11-31: «Hilaren hasieran, bi zekor, ahari bat eta urtebeteko zazpi arkume –denak akats gabeak– aurkeztuko dizkiozue Jaunari erre-oparitzat. **12** Oliotan oraturiko irina eskainiko duzue labore-oparitzat: zekor bakoitzeko hamabi kilo, ahariarekin zortzi kilo **13** eta arkume bakoitzeko lau kilo. Jaunaren ohorez erretako oparia da, berak atseginez onartzen duena. **14** Oparigaiei isur-opari hauek dagozkie: zekor bakoitzari hiru litro ardo, ahariari bi litro eta arkume bakoitzari litro eta erdi. Hori da hil guztien hasieran eskainiko den erre-oparia. **15** Gainera, aker bat eskainiko zaio Jaunari barkamen-oparitzat, egunerokо erre-opari eta isur-opariez gain.
16 «Lehen hilaren hamalauan Pazkoa ospatuko duzue Jaunaren ohorez, **17** eta hilaren hamabostean zazpi eguneko jaia hasten da: egun horietan legamia gabeko ogia jango duzue. **18** Astearen lehen egunean batzar sakratua izango duzue eta ez da ohiko lan arruntik egingo. **19** Opariak erreko dituzue Jaunaren ohorez: bi zekor, ahari bat eta urtebeteko zazpi arkume –denak akats gabeak–, **20** eta dagokien labore-oparia, oliotan oraturiko irina, alegia: zekor bakoitzeko hamabi kilo, ahariarekin zortzi kilo **21** eta arkume bakoitzeko lau kilo. **22** Gainera, aker bat barkamen-oparitarako, zeuen bekatuen barkamen-ohikunea egite-

ko. [23] Hori guztia eginen duzue goizero egin beharreko erre-opariaz gain. [24] Zazpi jaiegunetan, egunero eskainiko dituzue Jaunaren ohorez erretzeko opariak eta hark atseginez onartuko ditu. Opariok, eguneroko erre-opari eta isur-opariez gain eginen dituzue. [25] Zazpigarren egunean batzar sakratua izango duzue berriro eta ez da ohiko lan arruntik egingo.
[26] «Asteen Jaian, lehen fruituen egunean uzta berriko fruituen oparia Jaunari aurkeztean, batzar sakratua izango duzue eta ez da ohiko lan arruntik egingo. [27] Bi zekor, ahari bat eta urtebeteko zazpi arkume eskainiko dituzue erre-oparitzat, eta Jaunak atseginez onartuko ditu. [28] Oliotan oraturiko irina eskainiko duzue labore-oparitzat: zekor bakoitzeko hamabi kilo, ahariarekin zortzi kilo [29] eta arkume bakoitzeko lau kilo. [30] Gainera, aker bat zeuen bekatuen barkamen-ohikunea egiteko. [31] Opariok eginen dituzue eguneroko erre-opari eta labore-opariez gain. Abere akats gabeak aukeratuko dituzue eta dagozkien isur-opariak erantsiko.

MAIATZAK 10-16

ALTXORRAK JAINKOAREN HITZEAN | ZENBAKIAK 30-31

«Botoak bete ditzagun»

Zenbakiak 30:3 [30:2, *NW*]: «Jaunari eginiko botoz nahiz edozein zin-hitzez bere burua lotzen duen gizasemeak ezin izango du bere hitza jan: zehatz-mehatz beteko du hitzemana.

***it*-2 1213 ¶1**
Boto

Boto: boluntarioa, baina bete beharrekoa. Boto guztiak boluntarioak ziren. Hala ere, gizon batek boto bat egiten zuenean, Jainkoaren Legeak hau betetzera derrigortzen zuen. Horregatik boto bat egitea «bere burua lotzea» zela esaten zen (Zen 30:3 [30:2, *NW*]; ikusi Erm 1:31, 32 ere). Honek bere bizia bere hitza betetzearen baitan geratzen zela esan nahi zuen. Bizia jokoan zegoenez, ondo ulertzen dugu Idazkiek botoa egin aurretik ondo pentsatzeko zergatik dioten, hartuko diren betebeharrak adiadi aztertuz. Legeak zioen: «Jaunari zeuen Jainkoari botoren bat egiten badiozue, luzatu gabe beteko duzue; luzamendutan ibiliz gero, kontu estua eskatuko dizue Jaunak zeuen Jainkoak, eta errudun bihurtuko zarete. Botorik egiten ez baduzue, ez zarete izango errudun» (Dt 23:22, 23 [23: 21, 22, *NW*]).

Zenbakiak 30:4, 5 [30:3, 4, *NW*]: «Eman dezagun, Jaunari botoa egin edo bere burua edozein konpromisoz lotu duena, oraindik aitaren etxean bizi den neskatxa dela. [5] Aitak, jakinaren gainean egonik, deus ere esaten ez badio, boto eta konpromiso guztiak baliozkoak izango dira.

***it*-2 1212**
Boto

Jainkoari egindako promesa solemnea. Honetan zerbait egitea, eskaintza edo opariren bat egitea, zerbitzu bereziren bat hastea edota onargarria den zerbait ez egitea hitz ematen diozu. Botoa askatasunez egiten zen adierazpen boluntarioa zen. Promesa solemnea denez, boto bat egiteko zina egin behar da (Zen 30:3 [30:2, *NW*]; Mt 5:33). Botoa nahiaren adierazpena da gehiago. Zina, berriz, autoritate handiagoa duen norbaiten aurrean egiten da, eman den hitza egia dela eta beteko dela erakusteko. Zina egiten zenean, askotan, hitzarmen bat ere egiten zen (Has 26:28; 31:44, 53).

Zenbakiak 30:7-10 [30:6-9, *NW*]: «Eman dezagun, neskatxa, artean botoz edo ongi pentsatu gabe harturiko konpromisoz lotua dagoelarik, ezkondu egiten dela. **8** Senarrak, horren berri jakitean, deus ere esaten ez badio, boto nahiz konpromisoak baliozkoak izango dira. **9** Baina senarrak, jakitean, onirizten ez badie, baliogabeturik geldituko da emazteak eginiko boto nahiz ongi pentsatu gabe harturiko konpromisoa; Jaunak libre utziko du haietatik.
10 «Alarguntsaren nahiz senarrak zapuztutako emakumearen botoa nahiz edozein konpromiso baliozkoa izango da.

***w04* 8/1 27 ¶3**
Zenbakiak liburuaren ideia nagusiak

30:6-8. Indargabetu al dezake kristau senar batek bere emaztearen botoa? Botoei dagokienez, Jehobak gaur egun indibidualki tratatzen gaitu bere zerbitzarioi. Adibidez, Jehobari egiten diogun eskaintza boto pertsonala da (Ga 6:5). Senarrak ez du horrelako botorik indargabetzeko autoritaterik. Emazteak, hala ere, ez luke Jainkoaren Hitzaren edo bere senarrarekin dituen eginkizunen aurka doan botorik egin behar.

Irakaspen preziatuak

Zenbakiak 30:11-13 [30:10-12, *NW*]: Eman dezagun, ordea, emazteak, artean senarraren etxean bizi dela, botoz nahiz edozein zin-hitzez bere burua lotzen duela. **12** Senarrak, horren berri jakitean, deus ere esaten ez badio, oniritzia ematen dio, eta botoak zein konpromisoak baliozkoak izango dira. **13** Baina senarrak, jakitean, baliogabetzea erabakitzen badu, emazteak hitzemandako botoa nahiz konpromisoa hutsean geldituko da. Senarrak baliogabetu dituenez, Jaunak haietarik libre utziko du emaztea.

1 Samuel 1:11: Promes hau egin zion: «Jaun ahalguztiduna, begira zeure mirabe honen atsekabeari. Oroit zaitez nitaz. Ez ahaztu zeure mirabe hau. Jauna, semea ematen badidazu, zeuri eskainiko dizut bizitza osorako. Labanak ez du haren ileadatsa moztuko».

***it*-2 26 ¶3**
Jefte

Pertsonak eskaini zitezkeen santutegian Jehoba bakarrik zerbitzatzeko. Hau gurasoek zuten eskubide bat zen. Samuel honen adibide bat da. Jaio aurretik bere ama Anak boto bat egin zuen tabernakuluan zerbitzatuko zuela promestuz. Boto hau bere senarrak, Elkanak, onartu zuen. Samuelek bularra hartzeari utzi bezain pronto, Anak santutegirako eskaini zuen. Berarekin batera, Anak animalia bat eraman zuen sakrifikatzeko (1 Sm 1:11, 22-28; 2:11). Honen eredua den beste haur bat Samson izan zen. Nazareo bezala Jainkoa zerbitzatzeko eskainia izan zen bera (Ep 13:2-5, 11-14; konparatu aitak alabekin zuten autoritatea Zen 30:3-5, 16an agertzen den bezala).

Biblia-irakurketa

Zenbakiak 30:2-17 [30:1-16, *NW*]: Ondoren, Jaunaren beste aginduok adierazi zizkien Moisesek Israelgo leinuburuei: **3** «Jaunari eginiko botoz nahiz edozein zin-hitzez bere burua lotzen duen gizasemeak ezin izango du bere hitza jan: zehatzmehatz beteko du hitzemana.
4 «Eman dezagun, Jaunari botoa egin edo bere burua edozein konpromisoz lotu duena, oraindik aitaren etxean bizi den neskatxa dela. **5** Aitak, jakinaren gainean egonik, deus ere esaten ez badio, boto eta konpromiso guztiak baliozkoak izango dira. **6** Baina aitak, jakitean, onirizten

ez badie, boto eta konpromiso haiek guztiak hutsean gelditukо dira; haietatik libre utziko du Jaunak neskatxa, aitak oniritzirik eman ez diolako.
7 «Eman dezagun, neskatxa, artean botoz edo ongi pentsatu gabe harturiko konpromisoz lotua dagoelarik, ezkondu egiten dela. **8** Senarrak, horren berri jakitean, deus ere esaten ez badio, boto nahiz konpromisoak baliozkoak izango dira. **9** Baina senarrak, jakitean, onirizten ez badie, baliogabeturik gelditukо da emazteak eginiko boto nahiz ongi pentsatu gabe harturiko konpromisoa; Jaunak libre utziko du haietatik.
10 «Alarguntsaren nahiz senarrak zapuztutako emakumearen botoa nahiz edozein konpromiso baliozkoa izango da. **11** Eman dezagun, ordea, emazteak, artean senarraren etxean bizi dela, botoz nahiz edozein zin-hitzez bere burua lotzen duela. **12** Senarrak, horren berri jakitean, deus ere esaten ez badio, oniritzia ematen dio, eta botoak zein konpromisoak baliozkoak izango dira. **13** Baina senarrak, jakitean, baliogabetzea erabakitzen badu, emazteak hitzemandako botoa nahiz konpromisoa hutsean gelditukо da. Senarrak baliogabetu dituenez, Jaunak haietarik libre utziko du emaztea. **14** Edozein delarik ere emaztearen botoa edo barau egiteko zin-hitza, senarrak bihurtzen du baliozko ala baliogabeko. **15** Senarrak, emaztearen boto nahiz konpromisoaren berri jakinik, biharamuna arte deus ere esaten ez badio, emakumearen botoa zein konpromisoa baliozkoa izango da. **16** Baina geroago baliogabetzea erabakitzen badu, bera izango da emaztearen erruaren erantzule». **17** Horiek dira Jaunak Moisesi emandako arauak, bai emakume ezkonduak, bai oraindik aitaren etxean bizi den neskatxak eginiko promesei buruz.

MAIATZAK 17-23

ALTXORRAK JAINKOAREN HITZEAN | ZENBAKIAK 32-33

«Bota egingo dituzue hango biztanleak»

Zenbakiak 33:52: bota egingo dituzue hango biztanleak, beraien harrizko eta metal urtuzko idoloak desegin eta kultu-leku guztiak suntsitu.

***w10* 8/1 23**
Ba al zenekien?

Zer ziren idazki hebrearretan askotan aipatzen ziren kultu-lekuak?

Israeldarrak promestutako lurraldean sartzear zeudela, Jehobak kanaandarren kultu-leku guztiak suntsitzeko esan zien. Jainkoak agindu zien: «Beraien harrizko eta metal urtuzko idoloak desegin eta kultu-leku guztiak suntsitu» (Zenbakiak 33:52). Non egoten ziren adorazio faltsuaren kultu-leku hauek? Muino edo mendi gailurretan edo plataformak eraikitzen zituzten beste leku batzuetan, esaterako, zuhaitz azpietan edo hirietan (1 Erregeak 14:23; 2 Erregeak 17:29; Ezekiel 6:3). Bertan, aldareak, zutarri sakratuak, irudiak, intsentsua gordetzeko ontziak eta adoraziorako beste gauza batzuk zituzten.

Zenbakiak 33:53: Lurraldearen jabe egingo zarete eta bertan biziko, zeuei eman baitizuet haren jabe izan zaitezten.

Zenbakiak 33:55, 56: Alabaina, lurraldeko biztanleak botatzen ez badituzue, gelditukо direnak begian arantza nahiz saihetsean eztenkada bezain mingarri izango dituzue: erasoka ariko zaizkizue

biziko zareten lurraldean bertan. [56] Orduan, haiekin egin asmo nuena, zuekin egingo dut».

***w08* 2/15 27 ¶5-6**
Ikasi dezagun israeldarren akatsetatik

Gaur egun, israeldarren antzeko zailtasunak ditugu. Izan ere, gaur egungo gizarteak idolo pila bat ditu. Adibidez: dirua, entretenimendu munduko pertsonaiak, kiroleko izarrak, sistema politikoak, erlijioburu batzuk eta, agian, familia kideak. Nahigabe hauetako norbaitetan jarri dezakegu arreta. Jehoba maitatzen ez dutenekin adiskideak izateak, hondamendi espiritualera eraman gaitzake.

Egokia ez zen sexua, Baalen adorazioaren parte zen eta israeldar asko erakarri zituen. Antzeko tranpetan erortzen dira oraindik Jehobaren zerbitzari batzuk. Adibidez, arratoiaren klika nahikoa da etxean bakarrik dagoen pertsona kurioso edo kontu gutxiko baten kontzientzia ona galtzeko. Zer tristea izango zen kristau bat pornografian erortzea!

***it*-1 410 ¶4**
Kanaan

Josuek «ez zuen bete gabe utzi Jaunak Moisesi agindutako ezer ere» kanaandarren suntsipenari buruz (Jos 11:15). Baina israeldarrek huts egin zuten bere gida ona jarraitzean eta ez zuten guztiz suntsitu lurralde horretako kutsaduraren jatorria. Kanaandarrekin harremana mantentzeak israeldarrak infektatu zituen. Dudarik gabe, denborarekin, honek heriotza gehiago izatea ekarri zuen (delitu, moralgabekeria eta idolatriarengatik gertatutakoak aipatu gabe). Leialtasunez kanaandar guztiak suntsitu izan bazituzten, ez ziren hainbeste heriotza izango (Zen 33:55, 56; Ep 2:1-3, 11-23; Sal 106:34-43). Jehobak bere justizia eta epaiketetan beraiekin ez zuela bereizketarik egingo abisatu zien israeldarrei. Beraz, kanaandarrekin ez zuten harremanik izan behar. Esaterako, beraiekin ez zuten ezkondu behar, ez zituzten fedeak nahastu behar edota ez zituzten beraien erlijio-ohiturak eta ekintza nazkagarriak bereganatu behar. Hori eginez gero, kanaandarrak bezala suntsituak izango ziren eta Jehobak lurraldetik botako zituen (Ir 23:32, 33; 34:12-17; Lb 18:26-30; Dt 7:2-5, 25, 26).

Santiago 1:21: Beraz, itsuskeria oro eta hain ugari ageri den gaiztakeria bazterturik, onar ezazue otzan-otzan zuengan erein den eta zuek salbatzeko indartsu den mezua.

Irakaspen preziatuak

Zenbakiak 33:54, *Euskal Biblia*: Lurra, sendika bananduko dozue, zotz-egiñez; sendi ugaritsuai, atal andiagoa; txikiai, txikiagoa. Zotza nora, eta antxe izango dau bakotxak bere atala. Leiñu bakotxak zotzetan egoki jakon atala artuko dau.

***it*-2 238 ¶2**
Muga

Zozketaz tribu edo leinu bakoitzaren kokaleku geografikoa zehaztu ondoren, orain hauek izango zituzten mugak zehaztu behar ziren. Hauek tamainaren arabera egingo ziren. «Lurra, sendika bananduko dozue, zotz-egiñez; sendi ugaritsuai, atal andiagoa; txikiai, txikiagoa. Zotza nora, eta antxe izango dau bakotxak bere atala. Leiñu bakotxak zotzetan egoki jakon atala artuko dau» (Zen 33:54, *Euskal Biblia*). Zozketaz tokatutako kokaleku geografikoa mantendu egiten zen. Baina aldaketatxoak egon zitezkeen herentziaren tamainaren arabera. Esaterako, Judaren lurraldea handiegia zela ikusi zutenean, lur hau murriztu zitzaion zati bat kenduz eta Simeonen tribuari emanez (Jos 19:9).

Biblia-irakurketa

Zenbakiak 32:28-42: Honela agindu zien Moisesek Eleazar apaizari, Nunen seme Josueri eta israeldar leinuetako familia-buruei gadtarrei eta rubendarrei buruz: **29** «Gaden eta Rubenen ondorengoei, Jaunaren agindura borrokatzeko armaturik zuekin batera Jordan ibaia igarotzen badute, lurraldea menderatu ondoren, Galaad eskualdea emango diezue ondare. **30** Baina, armaturik zuekin batera Jordan igarotzen ez badute, Kanaan lurraldean izango dute ondarea zuek bezala». **31** Gaden eta Rubenen ondorengoek esan zuten: «Beteko dugu Jaunak zerbitzarioi esana. **32** Joango gara Kanaan lurraldera, armaturik Jaunaren agindura borrokatzera, eta dagokigun lurondarea Jordanez honaindian izango dugu jabetzan». **33** Horrela, Gaden eta Rubenen ondorengoei eta Joseren seme Manasesen leinu erdiari amortarren errege Sihonen eta Baxango errege Ogen erresumak eman zizkien Moisesek, bertako hiri eta inguruko herrixkekin. **34-36** Gaden ondorengoek Dibon, Atarot, Aroer, Atrot-Xofan, Jazer, Jogboha, Bet-Nimra eta Bet-Haran hiriak berreraiki eta gotortu zituzten, eta artegiak eraiki. **37-38** Rubenen ondorengoek Hexbon, Elale, Kiriataim, Nebo, Baal-Meon eta Sibma berreraiki zituzten, eta berreraikitako hiriei izena aldatu zieten. **39** Manasesen seme Makirren ondorengoek Galaadera joan eta konkistatu egin zuten, bertako amortarrak botaz. **40** Eta Moisesek Manasesen seme Makirren ondorengoei eman zien Galaad, eta bertan jarri ziren bizitzen. **41** Manasesen seme Jairren ondorengoek hango herrixkak konkistatu eta «Jairren Herrixkak» eman zieten izena. **42** Kenat hiria eta honen menpeko herrixkak konkistatu zituen Nobah-ek, eta bere izena eman, «Nobah» alegia.

HOBETU PREDIKATZE-LANEAN

«Handitu poztasuna predikatzean... Azaldu ideia nagusiak adibideak eta konparaketak erabiliz»

Mateo 5:14-16: «Zuek zarete munduarentzat argia. Ezin daiteke ezkuta mendi gainean dagoen hiria. **15** Kriseilua ere ez da pizten ontzipean ipintzeko, argimutilaren gainean baizik, etxeko guztiei argi egiteko. **16** Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita gorets dezaten.

Markos 2:21: «Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten; bestela, adabaki berriak jantzi zaharra behartu eta zarratada handiagoa egingo luke.

Lukas 14:7-11: Ohartu zen Jesus gonbidatuek mahaiko lehen jarlekuak hartzen zituztela, eta aholku hauek eman zizkien: **8** «Ezteietara gonbidatzen zaituztenean, ez jarri mahaiburuan, zu baino gonbidatu ospetsuagoren bat izan daiteke eta; **9** hala balitz, biok gonbidatu zaituztenak etorri eta esango lizuke: “Utzi tokia honi”; orduan, azkeneko lekuan eseri beharko zenuke lotsa gorrian. **10** Alderantziz, gonbidatzen zaituztenean, jarri azkeneko tokian, gonbidatu zaituenak, datorrenean, esan diezazun: “Adiskide, igo gorago”. Horrela, oso toki onean geldituko zara mahaikide guztien aurrean. **11** Zeren eta bere burua goratzen duena beheratu egingo baitu Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena, goratu».

Lukas 5:2-11: Eta bi ontzi ikusi zituen ur-bazterrean: arrantzaleak, ontzitik jaitsita, sareak garbitzen ari ziren. **3** Igo zen bietako batera, Simonenera, eta ontzia lehorretik pixka bat aldentzeko eskatu

zion; gero, eseri eta jendeari irakasten ziharduen ontzitik. **4** Hitzaldia amaitu zuenean, Simoni esan zion: –Jo itsas zabalera eta bota sareak arrantzurako. **5** Simonek erantzun zion: –Maisu, gau guztian eginahalak egin eta ez dugu ezer harrapatu; baina, zuk diozunez gero, botako dut sarea. **6** Hala egin zuten eta, hainbesteko arrain-pila harrapatu zutenez, sareak puskatzeko zorian zeuden. **7** Beste ontziko lagunei keinu egin zieten laguntzera etortzeko; hurbildu ziren eta bi ontziak ia-ia hondoratzeraino bete zituzten. 8 Gertatua ikusirik, Jesusen oinetara erori zen Simon Pedro, esanez: –Alde niregandik, Jauna, bekataria naiz eta! **9** Izan ere, zur eta lur zeuden eginiko arrantzuagatik Simon eta beronekin zirenak, **10** baita haren arrantzulagun Santiago eta Joan Zebedeoren semeak ere. Baina Jesusek esan zion Simoni: –Ez beldurtu, hemendik aurrera giza arrantzale izango zara. **11** Ontziak lehorrera atera zituzten eta, dena utzirik, jarraitu egin zioten.

Joan 4:7-15: **7-8** Ikasleak hirira joanak ziren janaria erostera. Hortan, Samariako emakume bat etorri zen putzura ur bila. Jesusek esan zion: –Emadazu edaten.
9 Orduan, emakume samariarrak esan zion: –Nola zuk, judu izanik, eskatzen didazu edatekoa niri, samariar naizen honi? (Jakin behar da juduek eta samariarrek ez dutela elkarrekin harremanik).
10 Jesusek erantzun zion: –Jainkoak ematen duena ezagutuko eta edatekoa nork eskatzen dizun jakingo bazenu, zeuk eskatuko zenioke berari, eta hark ur bizia emango lizuke.
11 Emakumeak esan zion: –Jauna, ez daukazu ura zerez atera, eta putzua sakona da. Nondik aterako duzu, beraz, ur bizi hori? **12** Geure aita Jakobek utzi zigun putzu hau eta bertatik edan zuten berak, beraren seme-alabek eta abereek. Hura baino handiagoa al zara zu?
13 Jesusek ihardetsi zion: –Ur honetatik edaten duena berriro ere egarri izango da; **14** nik emango diodan uretik edango duena, ordea, ez da sekula egarri izango; zeren nik emango diodan ura betiko bizia darion iturburu bihurtuko baitzaio barruan.
15 Orduan, emakumeak: –Jauna, emadazu ur horretatik, berriro egarri ez nadin, eta hona uretara etorri beharrik izan ez dezadan.

Erromatarrei 5:12: Gizon baten bidez sartu zen bekatua munduan, eta bekatuaren bidez heriotza; horrela, gizon-emakume guztiengana zabaldu zen heriotza, guztiek egin baitzuten bekatu.

MAIATZAK 24-30

ALTXORRAK JAINKOAREN HITZEAN | ZENBAKIAK 34-36

«Babestu Jehobarengan»

Zenbakiak 35:15: Sei hiriok babes-hiri izango dituzte, bai israeldarrek, bai etorkin nahiz israeldarren artean ostatuz dauden bidaiariek: nahi gabe hiltzen duen edonork, haietan aurkituko du iheslekua.

***w17.11* 9 ¶4**
Jehobarengan babesten ari al zara?

4 Batzuetan, posible zen norbait nahigabe hiltzea. Nola tratatzen zituzten israeldarrek kasu hauek? Heriotza nahigabe gertatu arren, pertsona honek errugabe baten heriotzaren errudun izaten jarraitzen zuen (Has 9:5). Hala ere, errukiz, sei babes-hirietako batera joan zitekeen babes bila, mendekua hartzeko eskubidea zuenarengandik ihes egi-

nez. Eta bertan geratu behar zuen apaiz nagusia hil arte (Zen 35:15, 28).

Zenbakiak 35:24: Halako kasuetan, inguruabar horiek kontuan harturik, elkarteak erabakiko du hiltzailearen eta mendekueskubidea duenaren arteko auzia.

***w17.11* 9 ¶6**
Jehobarengan babesten ari al zara?

6 Norbait nahi gabe hil ondoren, iheslariak hiriko adindunei bere arazoa azaldu behar zien ihes egin zuen babes-hiriaren atean. Iheslariari harrera ona eman behar zioten (Jos 20:4). Beranduago, hilketa gertatu zen hiriko adindunengana bidaltzen zuten, hauek kasua epaitzeko **(Irakurri Zenbakiak 35: 24, 25)**. Nahigabe hil zuela erabakitzen bazuten, orduan bakarrik itzuliko zen babeshirira.

Zenbakiak 35:25: Elkarteak libratu egingo du hiltzailea mendekariaren eskuetatik, eta ihesleku izan duen babes-hirira itzularaziko berriro; hantxe biziko da, olio sakratuz gantzuturiko apaiz nagusia hil arte.

***w17.11* 11 ¶13**
Jehobarengan babesten ari al zara?

13 Behin iheslaria babes-hiriaren barruan zegoela, seguru zegoen. Hiri horiei buruz, Jehobak esan zuen: «Hiri horiek izango dituzue babesleku» (Jos 20:2, 3). Jehobak ez zuen eskatzen iheslaria berriro epaitzea. Gainera, mendekatzeko eskubidea zuenak ezin zuen hirian sartu eta iheslaria hil. Hortaz, iheslariak ez zuen mendekuaren beldur izan behar. Hirian zegoen bitartean, seguru zegoen Jehobaren babespean. Hiri hau ez zen iheslarien *kartzela* bat. Bertan, lan egiteko, besteei laguntzeko eta Jehoba bakean zerbitzatzeko aukera zuten. Bizitza zoriontsua izatea posible zen.

Irakaspen preziatuak

Zenbakiak 35:31: Heriotza-zigorra merezi duen hiltzailearen bizia ezin izango da ordaindu diruaren truke; heriotzara emango dute.

***w91* 2/15 13 ¶13**
Beharrezkoa den erreskatea guztiontzat

13 Erreskateak ez zituen Adam eta Eba salbatu. Moisesen Legeak printzipio hau zuen: «Heriotza-zigorra merezi duen hiltzailearen bizia ezin izango da ordaindu diruaren truke; heriotzara emango dute» (Zenbakiak 35:31). Adam ez zen engainatua izan. Beraz, nahita egin zuen bekatu (1 Timoteori 2:14). Hau beraien ondorengoak hiltzea bezala izan zen. Zergatik? Hauek inperfekzioa eta heriotza-zigorra jaso zutelako. Argi dago Adamek heriotza merezi zuela, gizon perfektua izan arren, Jainkoaren Legea desobeditzea erabaki zuelako. Adamen bekatuaren prezioa ordaintzeak, hortaz, bere ondorengoen heriotza zigorra ezerezten du! (Erromatarrei 5:16). Zentzu legalean, bekatuaren botere suntsitzailea errotik kentzen da. Erreskatea ordaindu zuenak «gu guztion onerako jasan zuen berak heriotza». Beraz, Adamen semealaben bekatuen ondorioak eraman zituen (Hebrearrei 2:9; 2 Korintoarrei 5:21; 1 Pedro 2:24).

Biblia-irakurketa

Zenbakiak 34:1-15: Honela mintzatu zitzaion Jauna Moisesi: 2 «Eman agindu hauek israeldarrei: Kanaanen sartzear zaudete, eta hori izango da ondaretzat jasoko duzuen lurraldea. Hona lurraldearen mugak: 3 «Hegoaldetik, Tzin basamortutik hasi eta Edomgo mugaraino hedatuko da. Ekialdean, hegoaldeko muga, Itsaso Hilaren hego-ertzetik hasiko da. 4 Gero, Akrabim maldaren hegoaldera okertuko da

eta, Tzindik jarraituz, Kadex-Barnearen hegoaldera iritsiko. Ondoren, Hatzar-Adarretik jarraituz, Atzmonetik pasatuko da. **5** Atzmonen Egiptoko errekarantz okertuko da eta Mediterraneo itsasoan amaituko.
6 «Mendebaldetik, Mediterraneo itsasoa izango da muga.
7 «Iparraldetik, Mediterraneo itsasotik Hor mendiraino marratuko duzue muga. **8** Hor menditik Hamateko sarrerara luzatuko da eta Tzedadara iritsiko, **9** eta, Zifronetik jarraituz, Hatzar-Enanen amaituko da. Hori izango da iparraldeko muga.
10 «Ekialdetik, Hatzar-Enanetik Xefameraino marratuko duzue muga. **11** Handik, Ainen ekialdean dagoen Riblara jaitsiko da; gero, Genesaret aintziraren ekialdetik hegiz hegi jaitsiz joango da **12** eta, Jordanen zehar beherantz jarraituz, Itsaso Hilean amaituko.
«Hori izango duzue zeuen lurraldea, eta horiek berau inguratzen duten mugak». **13** Moisesek agindu zien israeldarrei: «Horixe da zozketaz banatuko duzuen lurraldea, Jaunak bederatzi leinuei eta hamargarrenaren erdiari ematea agindu duena. **14** Izan ere, Rubenen eta Gaden leinuetako eta Manasesen leinu erdiko familiek hartua daukate beren ondare-zatia. **15** Bi leinu horiek eta beste leinu erdiak Jordanen ekialdean, Jeriko parean, hartu dute beren ondare-zatia».

KRISTAUON BIZIMODUA

«Diziplina: Jehobaren maitasunaren adierazpena»

Erromatarrei 12:1: Senideok, Jainkoaren maitasunagatik eskatzen dizuet eskain ditzazuela zeuen buruak opari bizi, santu eta Jainkoarentzat atsegingarri. Hori da egiazko zuen kultua.

Hebrearrei 12:10, 11: Gurasoek bizitza labur honetarako eta beren irizpideen arabera zentzarazten gintuzten; Jainkoak, ordea, hobea den zerbaitetarako, haren santutasunean parte har dezagun, alegia. **11** Egia esan, mementoan edozein zentzarazpen mingarri da eta ez pozgarri; baina, gerora, zentzarazpenaren bidez zaildu direnek haren fruituak jasotzen dituzte: bakea eta bizitza zuzena.

Esaera Zaharrak 10:7: Zintzoa oroitua izango da eta onetsia, gaiztoen izena bera ere usteldu egingo.

Jeremias 46:28: Ez izan beldur, Jakoben herri, zeurekin izango bainauzu! Hala diot nik, Jaunak. Sakabanatu zaitudaneko nazioak suntsitu egingo ditut; zu, ordea, ez zaitut suntsituko; baina bai zentzaraziko merezi duzun neurrian: ez zaitut utziko zigorrik gabe».

Titori 1:13: Eta ez zuen gaizki esan. Horregatik, zentzarazi zorrotz sinesmenean osasuntsu iraun dezaten,

Esaera Zaharrak 3:11, 12: Ene seme, ez baztertu Jaunaren heziketa, ez haserretu zentzarazten bazaitu, **12** maite duenari egiten baitio Jaunak agiraka, aitak seme kutunari bezalaxe.

Esaera Zaharrak 10:17: Heziketa onartzen duena bizirako bidetik doa, zentzarazpena baztertzen duena okerbidetik.

MAIATZAK 31-EKAINAK 6

ALTXORRAK JAINKOAREN HITZEAN | DEUTERONOMIOA 1-2

«Jainkoa da benetako epailea»

Deuteronomioa 1:16: «Agindu hauek eman nizkien zuen epaileei: "Herritarren

auziak entzun eta zuzenbidez erabakiko dituzue, auziok beste herritarrekin nahiz etorkinekin izan.

***w96* 3/15 23 ¶1**
Jehobak zuzentasuna eta justizia maite ditu

Kongregazioko adindunek bekatu larriak epaitu behar dituzte (1 Korintoarrei 5:12, 13). Hori egitean, Jehobaren justizia errukia erakusten saiatzen dela gogoratu behar dute. Baina, horretarako, oinarri bat egon behar du: bekataria damutzea. Bestela ezin zaio errukia erakutsi. Hala ere, adindunek ez dute gaizki jokatu duena mendekuagatik kanporatzen. Kanporatzeak bide onera itzultzera lagunduko diola espero dute (Konparatu Ezekiel 18:23). Jesu Kristo buru denez, adindunek justiziaren alde egiten dute eta «haizetean babes» dira (Isaias 32:1, 2). Beraz, inpartzialak eta arrazoizkoak izan behar dute (Deuteronomioa 1:16, 17).

Deuteronomioa 1:17: Ez duzue alderdikeriaz epaituko: entzun txikiei handiei bezala, eta ez izan inoren beldur, Jainkoa baita benetako epailea. Auziren bat zailegia gertatzen bazaizue, jo niregana eta neuk erabakiko dut".

***w02* 8/1 9-10 ¶4**
Izan gaitezen leialak Jainkoaren autoritateari

4 Epailea izateko, Legea ezagutzea baino gehiago behar zen. Adindunak inperfektuak zirenez, euren joera txarrekin kontuz ibili behar zuten. Adibidez, berekoikeria, partzialtasuna eta gutiziarekin, hauek epaiketa aldatu zezaketelako. Moisesek esan zien: «Ez duzue alderdikeriaz epaituko: entzun txikiei handiei bezala, eta ez izan inoren beldur, *Jainkoa baita benetako epailea*». Bai, Israelgo epaileak Jainkoaren ordez epaitzen ari ziren. A zer pribilegio handia zuten! (Deuteronomioa 1:16, 17).

Hebrearrei 13:17: Egin zeuen zuzendarien esanak eta izan horien menpeko, zuetaz arduratzen baitira eta zuen kontu eman beharko baitiote Jainkoari; horrela, beren egitekoa atseginez bete ahal izango dute eta ez marmarka; honek ez lizueke inolako onik ekarriko.

Santiago 5:13-15: Zuetako norbait sufritzen dagoela? Egin dezala otoitz. Pozik dagoela? Kanta ditzala gorazarreak. 14 Zuetako norbait gaixo dagoela? Dei egin diezaiela eliz arduradunei, gaixoaren alde otoitz egin eta Jaunaren izenean olioz igurtz dezaten. 15 Fedez egindako otoitzak osasuna emango dio gaixoari eta jaikiaraziko du Jaunak, eta barkatu egingo dio, bekaturik egin badu.

Irakaspen preziatuak

Deuteronomioa 1:19: «Beraz, Jaunak gure Jainkoak agindu bezala, Horebetik abiatu eta ikusi duzuen basamortu handi eta beldurgarri honetan barrena ibili ginen, amortarren mendialdera bidean, Kadex-Barneara iritsi arte.

Deuteronomioa 2:7: Gogoan izan Jaunak zeuen Jainkoak egintza guztietan bedeinkatu zaituztela eta basamortu izugarri honetan egin duzuen ibilaldiaz arduratu dela; zeuekin izan duzue berrogei urte hauetan eta ez zaizue ezer falta izan.

***w13* 9/15 9 ¶9**
Jehobaren irakaspenak fidagarriak dira

9 Israeldarrak 40 urtez «basamortu handi eta beldurgarri» batean barrena ibili ziren. Jehobak ez zien aldez aurretik esan nola gidatu, babestu eta zainduko zituen. Hala ere, behin eta berriz berarengan eta bere

argibideetan konfiantza izan zezaketela erakutsi zien. Egunez laino-zutabe bat erabiliz eta gauez su-zutabe bat, honakoa gogoratu zien Jehobak israeldarrei: bere babesa zutela basamortu hori zeharkatzen zuten bitartean (Dt 1:19; Ir 40:36-38). Gainera, euren oinarrizko beharrak ere bete zituen. «Ez zitzaizkien jantziak zahartu, ez oinak handitu». Hala da, «ez zuten izan ezeren faltarik» (Ne 9:19-21).

Biblia-irakurketa

Deuteronomioa 1:1-18: Hauek dira Moisesek Israel herri osoari zuzenduriko hitzaldiak, Jordanez beste aldean, basamortuan, Sufen aurrez aurre dagoen haranean, hau da, Paran eta Tofel, Laban, Hatzerot eta Di-Zahaben arteko haranean. **2** Hamaika eguneko ibilaldia dago Horebetik Kadex-Barnearaino Seir mendialdeko bidetik. **3** Berrogeigarren urteko hamaikagarren hilaren lehen egunean mintzatu zitzaien Moises israeldar guztiei, Jaunak aginduriko guztia adieraziz, **4** Hexbonen bizi zen amortarren errege Sihon eta Axtarot-en eta Edrei-n bizi zen Baxango errege Og garaitu eta gero. **5** Moises ondorengo irakaspena azaltzen hasi zitzaien israeldarrei Jordanez beste aldean, Moab lurraldean. **6** Moisesek esan zuen: «Honela mintzatu zitzaigun Jauna geure Jainkoa Horeb mendian: Luzaro egon zarete jadanik mendi honen ondoan. **7** Abia zaitezte eta joan amortarren mendialde eta inguruetara: haranera, mendialdera eta Xefela lautadara, Negevera eta kostaldera, kanaandarren lurraldera eta Libanora, Eufrates ibai handiraino. **8** Hara, eskura ematen dizuet lurralde hori: joan eta jabetu nik, Jaun honek, zuen arbaso Abraham, Isaak eta Jakobi eta beraien ondorengoei zin eginez agindutako lurraldeaz.

9 «Orduan esan nizuen: Nik bakarrik ezin zaituztet eraman: **10** Jaunak zeuen Jainkoak ugaldu egin zaituzte eta, egun, zeruko izarrak bezain ugari zarete. **11** Jaunak zeuen arbasoen Jainkoak mila bider ugariago egin eta bedeinka zaitzatela, hitzeman dizuen bezala. **12** Baina nola eraman dezaket nik bakarrik zuen arazo eta auzien zama? **13** Aukera itzazue leinu bakoitzetik gizon jakintsu, buruargi eta trebatuak, eta zuen buru ezarriko ditut.

14 «Nire proposamenari ongi irizten zeniotela erantzun zenidaten. **15** Orduan, zuen artetik gizon jakintsu eta trebatuak hartu eta zuen buru ezarri nituen: mila, ehun, berrogeita hamar eta hamarreko taldeen buru; eta leinuentzat funtzionarioak izendatu nituen.

16 «Agindu hauek eman nizkien zuen epaileei: “Herritarren auziak entzun eta zuzenbidez erabakiko dituzue, auziok beste herritarrekin nahiz etorkinekin izan. **17** Ez duzue alderdikeriaz epaituko: entzun txikiei handiei bezala, eta ez izan inoren beldur, Jainkoa baita benetako epailea. Auziren bat zailegia gertatzen bazaizue, jo niregana eta neuk erabakiko dut”. **18** Aldi hartan bertan, egin behar zenuten guztiaz aginduak eman nizkizuen.

KRISTAUON BIZIMODUA

«Egon prest azken egunetako azken egunetan»

2 Timoteori 3:1: Jakin behar duzu azken egunetan une latzak izango direla.

Mateo 24:8: Baina hori guztia erdiminen hasiera da.

Lukas 16:10: «Gauza txikietan fidagarria, handietan ere fidagarri da, eta gauza txikietan zuzengabea, handietan ere zuzengabe.

Isaias 30:15, *NW*: Hau delako Jehoba Jaun Subiranoak, Israelgo Santuak, dioena: «Niregana itzuliz eta lasai itxaronez salbatuko zarete. Zuen indarra lasai egotean eta konfiantza izatean dago». Baina ez zenuten nahi izan.

Esaera Zaharrak 22:3: Arriskua ikusi eta gorde egiten da zentzuduna, heldugabeak aurrera segitu eta kaltea jasan behar.

EKAINAK 7-13

ALTXORRAK JAINKOAREN HITZEAN | DEUTERONOMIOA 3-4

«Jehobaren legeak jakintsuak eta zuzenak dira»

Deuteronomioa 4:6: Bete arretaz, horrek jakintsu eta buruargi egingo baitzaituzte herrien begietan. Lege hauen berri jakitean, esango dute: “Bai herri jakintsu eta buruargia nazio handi hau!”

***it*-1 821-822**
Ulermen

Jainkoaren Hitza eta bere legeak adi-adi aztertzea eta aplikatzeak, pertsona bati bere irakasleari baino jakinduria handiagoa eman ahal dio. Gainera, adinekoek baino ulermen handiagoa izan dezakete (Sal 119:99, 100, 130; konparatu Lk 2:46, 47). Honen arrazoia jakinduria eta ulermena Jainkoaren lege eta erabaki zuzenetan oinarritzen direla da. Israeldarrek hauek leialki betetzen zituztenean, honakoa esaten zuten inguruko nazioek: «Bai herri jakintsu eta buruargia nazio handi hau!» (Dt 4:5-8; Sal 111:7, 8, 10; 1 Erg 2:3). Ulermena duen pertsonak Jainkoaren Hitza bete egin behar dela onartzen du, bere bizitzan aplikatu nahi du eta Jainkoari eskatzen dio laguntza. Jainkoaren Hitza barneratzen du (Sal 119:169; Mt 13:19-23). Gainera, bide faltsu guztiak gorrotatzen ditu (Sal 119:104). Jainkoaren Semeak ulermena erakutsi zuen lurrean egon zenean. Nola? Bere bizia habean ematea onartu zuen Idazkietan horrela hilko zela aurresan zelako (Mt 26:51-54).

Deuteronomioa 4:6: Bete arretaz, horrek jakintsu eta buruargi egingo baitzaituzte herrien begietan. Lege hauen berri jakitean, esango dute: “Bai herri jakintsu eta buruargia nazio handi hau!”

***w99* 11/1 20 ¶6-7**
Eskuzabaltasun handia dagoenean

Ikusi eta entzun zuenaz harriturik, hau erantzun zuen erreginak apalki: «Dohatsuak zure jakinduria entzunez beti zure aurrean dauden zerbitzari hauek!» (1 Erregeak 10:4-8). Inguruan aberastasun asko zuten arren, ez zuen esan Salomonen zerbitzariak honegatik zirenik zoriontsuak. Horren ordez, Jainkoak Salomoni eman zion jakinduria behin eta berriz entzuten zutelako baizik. Sabako erregina oso eredu ona da gaur egungo Jehobaren herriarentzat. Herri honek Sortzailearen eta bere Semearen jakinduriaz gozatzen du.

Interesgarria da, gainera, erreginak Salomoni jarraian esan ziona: «Bedeinkatua Jauna, zure Jainkoa» (1 Erregeak 10:9). Argi dago Jehobaren eskua ikusi zuela Salomonen jakinduria eta aberastasunean. Hau Jehobak israeldarrei aurretik promestu zienarekin bat dator: «Bete arretaz, horrek jakintsu eta buruargi egingo baitzaituzte herrien begietan. Lege hauen berri jakitean, esango dute: “Bai herri jakintsu eta buruargia nazio handi hau!”» (Deuteronomioa 4:5-7).

Deuteronomioa 4:7, 8: Izan ere, ez da munduan naziorik, handia bada ere, bere jainkoak guk bezain hurbil dituenik, guk Jauna geure Jainkoa, dei egiten diogun

bakoitzean, dugun bezain hurbil, alegia; [8] ezta gaur adierazten dizuedan irakaspen hau bezain lege eta erabaki zuzenak dituenik ere.

w07 **8/1 29 ¶13**
Jainkoarentzat aberats al zara?

[13] Jehobak bere zerbitzariak bedeinkatzen dituenean, beti onena ematen die (Santiago 1:17). Adibidez, Jehobak israeldarrei eman zien bizitokia, «esnea eta eztia» ematen zituen lurraldea zen. Eta Egipto berdin deskribatu zenez, zertan desberdintzen ziren Egipto eta Jehobak eman zien lurralde hau? Moisesek israeldarrei esan zien: «Jauna zuen Jainkoa arduratzen da lurralde honetaz». Beste modu batera esanda, ondo joango zitzaien Jehobak zainduko zituelako. Israeldarrek Jehoba leialki zerbitzatzen zuten bitartean, berak asko bedeinkatuko zituen eta inguruko nazioak baino bizitza askoz hobea izango zuten. Bai, Jehobaren bedeinkapenak aberasten gaitu! (Zenbakiak 16:13; Deuteronomioa 4:5-8; 11:8-15).

Irakaspen preziatuak

Deuteronomioa 4:23: Ez gero ahaztu zuen Jainko Jaunak zuekin burutu duen ituna, ez egin ere edozein izakiren irudiko idolorik, Jaunak zeuen Jainkoak galarazi baitizue;

w04 **9/15 25 ¶3**
Deuteronomioa liburuaren ideia nagusiak

4:15-20, 23, 24. Irudiak egitearen debeku honek helburu artistikoetarako irudiak egitea gaizki dagoela esan nahi al du? Ez. Debeku honek adoratzeko irudiak ezin zirela egin esan nahi zuen, hauen aurrean ahuspeztuz edo hauek zerbitzatuz. Idazkiek ez dute helburu artistikoak dituzten irudi edo marrazkiak egitea debekatzen (1 Erregeak 7: 18, 25).

Biblia-irakurketa

Deuteronomioa 3:1-13: «Gero, gora jo genuen, Baxanerantz. Baina, Edrei hirian, Baxango Og erregea bidera irten zitzaigun gudaroste osoarekin borrokara.
[2] «Orduan, Jaunak esan zidan: Ez izan horren beldur, bera, beraren gudarostea eta lurraldea zure esku utzi baititut; horri ere Hexbongo Sihon errege amortarrari egindakoa bera egingo diozu.
[3] «Horrela, gure esku jarri zituen Jaunak gure Jainkoak Baxango Og erregea eta beronen gudaroste osoa, eta garaitu egin genituen, bizirik inor ere ez uzteraino. [4] Haien hiri guztiak konkistatu genituen, bat ere utzi gabe: guztira, hirurogei hiri, hau da, Baxango Og erregearen erresuma osatzen zuen Argob eskualde osoa; [5] hiri guztiok gotortuak ziren, harresi handiz inguratuak, morroiloz hornituriko atetzarrak zituztelarik; gainera, harresi gabeko beste hiri asko hartu genituen. [6] Erabat suntsitu genituen, Hexbongo Sihon erregearekin egin bezala, bertako jende guztia garbituz: gizon, emakume eta haur; [7] hirietako abere eta ondasunak, aldiz, guda-harrapakin gisa hartu genituen.
[8] «Horrela bada, Jordanez beste aldeko, ekialdeko, bi errege amortar haien lurraldeak eskuratu genituen, Arnon errekatik Hermon mendiraino [9] (mendi horri "Sirion" deitzen diote sidondarrek eta "Senir" amortarrek). [10] Gure esku gelditu ziren lautadako hiri guztiak, baita Galaad eta Baxan eskualdeak ere, Baxango Ogen erresumako Salka eta Edrei hirietaraino. [11] (Baxango Og erregea zen antzinako refatar erraldoietarik gelditzen zen bakarra; Raban, amondarren hiriburuan, dagoen basalto harrizko haren hilobiak erakusten du erraldoitasun hori, lau metro eta erdi

luze eta bi metro zabal baita, ohiko neurriaren arabera).
12 «Orduan jabetzan hartu genuen lurraldea honela banatu genuen: Arnon erreka ondoan dagoen Aroertik hasita Galaadeko mendialdearen erdia bertako hiriekin Ruben eta Gaden leinuei eman nien. **13** Galaadeko gainerako lurraldea eta Ogena izandako erresuma, hau da, Argob eskualdea eta Baxan osoa, refatarren eskualde esaten ziotena, Manasesen leinu erdiari eman nizkion.

HOBETU PREDIKATZE-LANEAN

«Handitu poztasuna predikatzean: Gogo biziz irakatsi»

Erromatarrei 12:11: Izan saiatuak eta ez nagi; izan gogoz kartsu, Jauna zerbitzatzeko beti prest.

Erromatarrei 10:15: Nola hots egin, hartarako bidalirik ez bada? Liburu Santuak dioen bezala: *Bai ederrak berri onak ekartzen dituztenen oinak!*

Erromatarrei 10:13, 14: Izan ere, *Jaunari dei egin diezaiona salbatuko da.* **14** Nola, ordea, dei egin, harengan sinesten ez badute? Nola sinetsi, haren entzuterik ez badute? Nola entzun, nork hots eginik ez bada?

EKAINAK 14-20

ALTXORRAK JAINKOAREN HITZEAN | DEUTERONOMIOA 5-6

«Irakatsi seme-alabei Jehoba maitatzen»

Deuteronomioa 6:5: Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz eta indar guztiz.

Gurasoak, bete familiaren beharrak

***w05* 6/15 20 ¶11**

11 Gai honetarako, ziurrenik, Deuteronomioa 6:5-7ra da gehien erabiltzen den pasartea. Ireki Biblia, mesedez, eta irakurri bertset horiek. Ikusi, lehendabizi, gurasoei beraien espiritualtasuna landu behar dutela esaten zaiela. Horretarako, Jehobarengandik duten maitasuna landu eta bere Hitzak gogoan edo bihotzean gorde behar dute. Hori lortzeko, Bibliaren ikasle finak izan behar dute, Biblia etengabe irakurriz eta horretan hausnartuz. Horrela, ulermena izango dute eta Jehobaren bide, printzipio eta legeak maitatuko dituzte. Ondorioz, euren bihotza Bibliako egia zoragarriz beteta egongo da eta horrek Jehobarengandik poza, errespetua eta maitasuna sentitzen lagunduko die. Gauza on ugari izango dituzte seme-alabei erakusteko (Lukas 6:45).

Deuteronomioa 6:6: Izan beti gogoan gaur ematen dizkizudan agindu guztiok;

***w07* 5/15 15-16**
Nola eman ahal diet seme-alabei benetako heziketa?

Zuk dituzun idealak, ametsak, baloreak eta interesak egiten dituzun gauzetan ere adierazten duzu, ez hitzekin bakarrik (Erromatarrei 2:21, 22). Txiki-txikitatik, haurrek gurasoei adi-adi ikusiz ikasten dute. Gurasoentzat inportantea zer den antzematen dute eta askotan gauza hauek inportanteak bihurtzen dira gazteak direnean. Jehoba benetan maite baduzu, seme-alabak horretaz konturatuko dira. Adibidez, zuretzat Biblia irakurtzea eta aztertzea garrantzitsua dela ikusiko dute (Mateo 6:33). Gainera, Jainkoaren Erreinua zure bizitzan garrantzitsuena dela ikusiko dute. Bileretara beti joatean eta etengabe predikatzean, Jehobaren zerbitzua zure bizitzako gauzarik

garrantzitsuena dela erakutsiko diezu (Mateo 28:19, 20; Hebrearrei 10:24, 25).

Deuteronomioa 6:7: irakatsi behin eta berriro zeure seme-alabei; mintzatu haietaz etxean zaudela nahiz bidean zoazela, oheratzean nahiz jaikitzean;

***w05* 6/15 21 ¶14**
Gurasoak, bete familiaren beharrak

14 Deuteronomioa 6:7ak erakusten duen bezala, gurasoek aukera asko dituzue seme-alabekin gauza espiritualei buruz hitz egiteko. Zuen haurren behar espiritualak asetu ditzakezue bidaiatzean, etxeko lanak egitean, deskantsatzean edota bilatzen dituzuen beste aukera batzuetan. Noski, ez duzue etengabe Bibliari buruzko sermoia botatzen ibili behar. Kontrara, saiatu familiako elkarrizketak animagarriak eta espiritualak izaten. Adibidez, *¡Despertad!* edo *Réveillez-vous !* aldizkariak gai asko dituzten artikuluak ditu. Zeri buruzko elkarrizketak izan ditzakezue artikulu hauei esker? Animaliei, paraje naturalei eta bizimodu eta kultura desberdinei buruzkoak. Elkarrizketa hauek, morroi leial eta zentzudunaren argitalpenak irakurtzera animatuko dituzte seme-alabak (Mateo 24:45-47).

Irakaspen preziatuak

Deuteronomioa 5:21: «Ez gutiziatu lagun hurkoaren emaztea. Ez irrikatu haren etxerik, ez sororik, ez morroimiraberik, ez idirik, ez astorik eta ez beste ezertxo ere.

***w19.02* 22 ¶11**
Maitasuna eta justizia antzinako Israelen

11 Zer ikasten dugu? Jehobak itxura baino gehiago ikusten du, gure bihotza ikusten du (1 Sm 16:7). Gure pentsamendu, sentimendu eta ekintzak ezin dizkiogu sekretuan gorde. Gure gauza onak bilatzen ditu eta hauek indartzen ditu. Baina gure pentsamendu txarrak identifikatzeko eta kontrolatzeko eskatzen digu, ekintza txarrak egiten ez amaitzeko (2 Kro 16:9; Mt 5:27-30).

Biblia-irakurketa

Deuteronomioa 5:1-21: Moisesek israeldar guztiak bildu eta esan zien: «Entzun, israeldarrok, gaur adierazten dizkizuedan lege eta erabakiak; ikas itzazue eta saiatu betetzen. **2** Jaunak gure Jainkoak ituna egin zuen gurekin Horeb mendian. **3** Ituna ez zuen burutu gure arbasoekin, gurekin baizik, gaur hemen bizirik gauden guztiokin. **4** Aurrez aurre hitz egin zizuen Jaunak mendian, suaren erditik. **5** Egokiera hartan, ni Jaunaren eta zuen artean nengoen, Jaunaren hitza zuei adierazteko, ez baitzineten mendira igo suaren beldurrez. «Jaunak esan zuen: **6** «Neu nauzu Jauna zeure Jainkoa, Egiptotik, esklabotzatik, atera zintuena. **7** «Ez izan ni beste jainkorik. **8** «Ez egin idolorik, ez irudirik, goian zeruan, behean lurrean nahiz lurpeko uretan dagoenetik. **9**Ez ahuspeztu haien aurrean, ezta gurtzarik eman ere, ni, Jauna, zure Jainkoa, Jainko jeloskorra bainaiz: gorroto didaten gurasoen gaiztakeria ondorengoengan zigortzen dut hirugarren eta laugarren belaunaldiraino ere; **10** baina mila belaunaldiz agertzen diet onginahia maite nautenei eta nire aginduak betetzen dituztenei. **11** «Ez erabili alferrik Jaunaren zeure Jainkoaren izena, ez baitut hori egingo duenik zigorrik gabe utziko. **12** «Gorde larunbata, Jaunari sagaratuz, Jaunak zure Jainkoak agindu bezala. **13** Sei egunez egingo duzu lan eta zeure eginbehar guztiak burutuko; **14** baina zazpigarrena atseden-eguna duzu, Jaunari

zeure Jainkoari sagaratua. Ez egin inolako lanik egun horretan, ez zuk, ez zure seme-alabek, ez zure morroi-mirabeek, ez zure idi, asto zein beste abereek, ezta zure hirietan bizi den etorkinak ere; horrela, zure morroi-mirabeek ere, zeuk bezala, atseden hartu ahal izango dute. **15** Izan gogoan zeu ere esklabo izan zinela Egipton, eta Jaunak zeure Jainkoak atera zintuela handik ahalmen handiz eta esku indartsuz. Horregatik agindu dizu Jaunak zeure Jainkoak atseden-eguna gordetzeko. **16** «Ohoratu aita-amak, Jaunak zeure Jainkoak agindu bezala, luzaro bizi eta zoriontsu izan zaitezen, Jaunak zeure Jainkoak ematen dizun lurraldean. **17** «Ez hil inor. **18** «Ez egin adulteriorik. **19** «Ez ostu. **20** «Ez egin gezurrezko testigantzarik lagun hurkoaren aurka. **21** «Ez gutiziatu lagun hurkoaren emaztea. Ez irrikatu haren etxerik, ez sororik, ez morroi-miraberik, ez idirik, ez astorik eta ez beste ezertxo ere.

KRISTAUON BIZIMODUA

«Erakutsi maitasuna familian»

Efesoarrei 5:28, 29: Era berean, senarrek ere beren gorputza bezalaxe maitatu behar dituzte emazteak. Emaztea maite duenak bere burua maite du. **29** Ez du inork bere gorputza gorrotatzen, baizik eta jaten eman eta zaindu egiten du, Kristok Elizarekin egiten duen bezala;

1 Timoteori 5:8: Beretarrez eta etxekoez bereziki arduratzen ez den norbait baldin badago, honek bere sinesmenari uko egin dio eta sinesgabea baino okerragoa da.

Efesoarrei 5:22: Emazteak izan daitezela beren senarren menpeko, Jaunaren menpeko bezala,

Efesoarrei 5:33: Dena dela, zuetariko bakoitzak maita beza emaztea bere burua bezala, eta emazteak izan biezaio begirune senarrari.

1 Pedro 3:1-6: Zuek ere, emazteok, izan zaitezte zeuen senarren menpeko; horrela, horietakoren batzuek salbamen-mezua onartzen ez badute ere, emazteen jokabideak, eta ez hitzek, salbamenerako irabaz ditzan, **2** zuen jokabide garbi eta errespetuzkoa ikusteak, alegia. **3** Ez arduratu kanpoko edertasunaz: orrazkera, urrezko bitxi eta luxuzko soinekoen apainduraz; **4** baizik eta arduratu ezkutuko bihotz-barruaz, espiritu gozo eta baketsuaren edertasun ustelezinaz, honek balio baitu Jainkoaren aurrean. **5** Horrelaxe apaintzen ziren garai bateko emakume santuak ere, beren itxaropena Jainkoarengan jarria zutenak: beren senarren menpeko izanez. **6** Sarak, esate baterako, obeditu egiten zion Abrahami eta «Ene jauna» esaten zion. Zuek haren benetako alaba izango zarete, ezeren beldurrik gabe, onbidean bazabiltzate.

Efesoarrei 4:32: Izan zaitezte elkarrentzat on eta bihozbera, elkarri barkatuz, Jainkoak Kristoren bitartez barkatu dizuen bezala.

Deuteronomioa 6:6, 7: Izan beti gogoan gaur ematen dizkizudan agindu guztiok; **7** irakatsi behin eta berriro zeure seme-alabei; mintzatu haietaz etxean zaudela nahiz bidean zoazela, oheratzean nahiz jaikitzean;

Efesoarrei 6:4: Gurasook, ez sumindu seme-alabak; hezi itzazue, ordea, Jaunari dagokion bezala irakatsiz eta zentzaraziz.

EKAINAK 21-27

ALTXORRAK JAINKOAREN HITZEAN | DEUTERONOMIOA 7-8

«Ez ezkondu beraiekin»

Deuteronomioa 7:3: Ez ahaidetu haiekin, zeuen seme-alabak haienekin ezkonduz;

***w12* 7/1 29 ¶2**
Zergatik eskatu zien Jainkoak bere zerbitzariei fedekideekin bakarrik ezkontzeko?

Detaile askotan sartu gabe, Jehobak bazekien Satanasek zer nahi zuen: bere herria egiazko adoraziotik aldentzea jainko faltsuak adoratuz. Horregatik, Jainkoak abisatu zien fedegabeek berarengandik urrundu eta jainko faltsuak zerbitzatzera eramango zituztela. Asko zegoen jokoan. Israelgo nazioak beste jainkoak zerbitzatzen bazituen, Jainkoaren onespena eta babesa galduko zituzten eta, horrela, beraien etsaien esku geldituko ziren. Nola etorriko zen, orduan, promestutako Mesias israeldarren artetik? Argi dago, hortaz, Satanasek arrazoi asko zituela israeldarrak engainatzen saiatzeko bidegabeekin ezkon zitezten.

Deuteronomioa 7:4: bestela, Jaunarengandik saihestu eta jainko arrotzei kultua ematera eramango lituzkete zuen seme-alabak; orduan, Jaunaren haserrea zuen kontra piztu eta bat-batean suntsituko zintuzkete.

***w15* 3/15 30-31**
Errealista al da kristau batekin bakarrik ezkontzea?

Jehobak bere Hitzean bere zerbitzari leialekin bakarrik ezkontzeko agintzen du. Zergatik? Bere herriarentzat onena zer den dakielako. Alde batetik, ez du bere zerbitzariok bide txarra jarraitzeagatik sufritzerik nahi. Eta bestetik, gu zoriontsu izatea nahi du. Nehemiasen garaian, judutar asko Jehoba adoratzen ez zuten kanpotarrekin ezkontzen ari ziren. Ondorioz, Nehemiasek Salomonen eredu txarra gogoratu zien. Jainkoak Salomon maite zuen arren, «emakume arrotzek bekatura eraman zuten» (Ne 13:23-26). Beraz, gure onerako, Jainkoak egiazko zerbitzariekin bakarrik ezkontzeko esan digu (Sal 19:7-10; Is 48:17, 18). Egiazko kristauek asko eskertzen dute Jainkoaren zaintza maitekorra eta bere gidan konfiantza guztia dute. Bere agintaritzaren menpe egotean, unibertsoko subiranoa dela aitortzen dute (Es 1:5).

1 Korintoarrei 7:39: Emakumea loturik dago senarra bizi den bitartean. Hiltzen bazaio, libre gelditzen da eta nahi duenarekin ezkon daiteke, aukeratua kristaua izanez gero.

1 Korintoarrei 6:14: Eta Jainkoak, Jauna piztu zuenak, gu ere piztu egingo gaitu bere ahalmenaz.

***w15* 8/15 26-27 ¶12**
Kontu handia izan lagunekin azken egun hauetan

12 Ezkongabeek kontu handia izan behar dute lagunekin, batez ere, ezkondu nahi baldin badute. Jainkoaren Hitzak argi dio: «Ez nahas sinesgabeekin. Ba al dute zerikusirik elkarrekin zuzenbideak eta gaiztakeriak? Elkar ote daitezke argia eta iluna?» (2 Ko 6:14). Bibliak Jainkoaren zerbitzarien ezkontideak kristaua izan behar duela dio. Zer esan nahi du honek? Ezkontideak bere bizia Jainkoari eskaini diola, bataiatu egin dela eta Bibliako irakaspenen arabera bizi dela (1 Ko 7:39). Kristau batekin ezkontzean, bizia Jehobari eskaini dion eta integritateari eusten lagunduko dion ezkonlaguna lortzen du.

Irakaspen preziatuak

Deuteronomioa 8:3: Behar gorrian jarri zintuzten, gosea pasarazi eta mana eman zizuen jaten, ez zuek, ez zuen arbasoek, ezagutzen ez zenuten janaria, zuei jakinarazteko, gizakia ez dela ogiz bakarrik bizi, baizik Jaunak esaten duenetik bizi dela.

***w04* 2/1 13-14 ¶4**

Jehobak gure eguneroko beharrak asetzen ditu

4 Otoitzean eguneroko ogia eskatzeak egunero espiritualki jatea behar dugula gogoratzen digu. Jesus gose zen barau luzea egin zuelako. Hala ere, Satanasek harriak ogi bihurtzeko tentatu zuenean, aurre egin zion hau esanez: «Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi, baizik Jainkoak esaten duenetik bizi da» (Mateo 4:4). Jesusek, hemen, Moisesek israeldarrei esandako hitzak aipatu zituen: «Behar gorrian jarri zintuzten, gosea pasarazi eta mana eman zizuen jaten, ez zuek, ez zuen arbasoek, ezagutzen ez zenuten janaria, zuei jakinarazteko, gizakia ez dela ogiz bakarrik bizi, baizik Jaunak esaten duenetik bizi dela» (Deuteronomioa 8:3). Jehobak israeldarrei mana eman zien moduari esker, janari fisikoa emateaz gain, ikasgai espiritualak eman zizkien. Israeldarrek egunean egunekoa bildu behar zuten. Egunerako behar zutena baino gehiago biltzen bazuten, soberan geratzen zitzaiena gaizki usaintzen hasten zen eta arrak ateratzen zitzaizkion (Irteera 16:4, 20). Hala ere, hau ez zen seigarren egunean gertatzen. Egun honetan, bikoitza jaso behar zuten larunbateko beharrak betetzeko (Irteera 16: 5, 23, 24). Eta zer ikasi zuten israeldarrek manari esker? Obedienteak izan behar zirela eta gizakia ez dela ogiz bakarrik bizi, baizik Jehobak esaten duenetik bizi dela.

Biblia-irakurketa

Deuteronomioa 7:1-16: «Jaunak zeuen Jainkoak jabetzan hartzera zoazten lurraldean sarraraziko zaituzte, eta kanpora botako dituzue zuek baino handiago diren herriak: hitita, girgaxtar, amortar, kanaandar, periztar, hibiar eta jebustarrak, zazpi herri zuek baino jendetsu eta indartsuagoak. 2 Jaunak zeuen Jainkoak eskura eman eta zuek garaitu egingo dituzue. Orduan, suntsitu egingo dituzue erabat: ez egin haiekin hitzarmenik, ez izan errukirik. 3 Ez ahaidetu haiekin, zeuen semealabak haienekin ezkonduz; 4 bestela, Jaunarengandik saihestu eta jainko arrotzei kultua ematera eramango lituzkete zuen seme-alabak; orduan, Jaunaren haserrea zuen kontra piztu eta bat-batean suntsituko zintuzkete. 5 Aitzitik, hau egingo duzue: haien aldareak bota, zutarri sakratuak apurtu, zutoin sakratuak moztu eta idoloak erre. 6 Jaunarentzat zeuen Jainkoarentzat sagararuriko herri zarete: berak hautatu zaituzte munduko herri guztien artean bere herri, bere jabego berezi, izateko. 7 «Jaunak atsegin izan eta hautatu bazaituzte, ez da, ez, herririk handiena zaretelako –txikiena zarete eta, izan ere–, 8 baizik eta maite zaituztelako eta zuen arbasoei eginiko zin-hitza bete nahi izan duelako; horregatik, hain zuzen, atera zaituzte ahalmen handiz esklabotzatik eta Egiptoko faraoiaren menpetik askatu. 9 «Aitor ezazue, beraz, Jauna zeuen Jainkoa dela egiazko Jainkoa: Jainko leiala, maite dutenei eta beraren aginduak betetzen dituztenei itun-hitza gorde eta onginahia mila belaunaldiz agertzen diena; 10 gorroto diona, berriz, zuzen-zuzenean ordaina eman eta suntsitu egiten du, luzatu gabe ematen dio ordaina. 11 Bete, bada,

gaur ematen dizkizuedan agindu, lege eta erabakiak. **12** «Erabaki horiek onartu eta arretaz betetzen badituzue, Jaunak zeuen Jainkoak gordeko dizue zuen arbasoei zin eginez hitzemandako ituna, eta agertuko bere onginahia. **13** Maite izango zaituzte, bedeinkatu eta ugalduko, emankor egingo zaituzte zeuek, zuen abereak eta lurrak: garia, ardoa eta olioa oparo emango dizkizue, eta zekor eta arkumeak ugalduko, zuen arbasoei zin egindakoaren arabera emango dizuen lurraldean. **14** Herri guztien gainetik bedeinkatuko zaituzte: ez da zuen artean inor agorrik izango, ezta antzurik ere zuen abereen artean. **15** Jaunak gaixotasun guztiak urrunduko ditu zuengandik; ez dizkizue bidaliko ongi ezagutzen dituzuen Egiptoko izurri ikaragarriak, baizik eta gorrotoa dizuetenei bidaliko dizkie. **16** «Deuseztatu egingo dituzue Jaunak zeuen Jainkoak eskura emango dizkizuen herri guztiak. Ez izan haien gupidarik, ez gurtu haien jainkorik, galbide gertatuko bailitzaizueke.

EKAINAK 28-UZTAILAK 4

ALTXORRAK JAINKOAREN HITZEAN | DEUTERONOMIOA 9-10

«Zer eskatzen digu Jehobak?»

Deuteronomioa 10:12: «Eta orain, israeldarrok, zer da Jaunak zeuen Jainkoak eskatzen dizuena? Errespeta dezazuela Jauna zeuen Jainkoa, haren bideetan ibiliz, hura maitatuz eta zerbitzatuz bihotz-bihotzez eta gogo osoz,

***w09* 10/1 10 ¶3-4**
Zer eskatzen digu Jehobak?

Zerk bultza gaitzake Jainkoa gogo biziz zerbitzatzera? Moisesek faktore bat aipatu zuen: «Errespeta dezazuela Jauna, zeuen Jainkoa» (12. bertseta). Errespetu honek, Jainkoari eta bere bideei begirune handia izatea esan nahi du. Begirune handi hau erakusten badiogu, ez dugu tristetu nahiko.

Baina, zerk izan beharko luke Jehoba obeditzeko motibaziorik handiena? Moisesek adierazten digu zein den motibazioa: «Hura maitatuz eta zerbitzatuz bihotz-bihotzez eta gogo osoz» (12. bertseta). Jainkoa maitatzea sentimendua baino gehiago da. Erreferentzia-lan batek hau dio: «Sentimenduetarako erabiltzen den aditz hebrearrak, batzuetan, sentimenduen atzean dauden ekintzak ere barne ditu». Gainera, Jainkoa maitatzea «bere alde *ekintza* maitekorrak egitea» esan nahi duela dio. Beste hitz batzuetan, Jainkoa benetan maite badugu, berari gustatzen zaizkion gauzak egingo ditugu (Esaera Zaharrak 27:11).

Deuteronomioa 10:13: eta bete ditzazuela ematen dizkizuedan Jaunaren agindu eta legeak, horrela jokatuz zoriontsu izan zaitezten.

***w09* 10/1 10 ¶6**
Zer eskatzen digu Jehobak?

Gogo onez obeditzen badugu, bedeinkapenak izango ditugu. Moisesek idatzi zuen: «Bete ditzazuela ematen dizkizuedan Jaunaren agindu eta legeak, horrela jokatuz zoriontsu izan zaitezten [“zuen onerako izan dadin”, *NW*]» (13. bertseta). Bai, Jehobak agintzen digun guztia eta eskatzen digun guztia, gure onerako da. Ezinezkoa da beste modu batera izatea, «Jainkoa maitasuna baita» (1 Joan 4:8). Are gehiago, berak eman dizkigun agindu guztiak, betirako ongi bizi gaitezen bakarrik dira (Isaias 48:17). Jehobaren esanekoak bagara, gaur sufrimendu gutxiago izango dugu eta, etor-

kizunean, betirako sekulako bedeinkapenak gozatuko ditugu bere Erreinupean.

Deuteronomioa 10:15: Baina Jaunak zuen arbasoak bakarrik izan zituen atsegin eta maite, eta segidan zuek, haien ondorengoak, hautatu zintuzten herri guztien artean, gaur egun gertatzen denez.

***cl* 16 ¶2**
Benetan gerturatu al gaitezke Jainkoarengana?

2 Abrahamek harreman estu hori zuen Jainkoarekin. Jehobak Abrahami bere lagun deitu zion (Isaias 41:8). Bai, Jehobarentzat, Abraham bere lagun mina zen. Nola lortu zuen hau Abrahamek? Jehobarengan fedea jarriz (Santiago 2:23). Gaur egun ere, Jehobak bera maitasunarengatik zerbitzatu nahi dutenei gerturatzeko aukerak bilatzen ditu (Deuteronomioa 10:15). Honetara animatzen gaitu bere Hitzak: «Hurbil zaitezte Jainkoarengana eta hurbildu egingo zaizue» (Santiago 4:8). Hitz hauetan gonbidapen bat eta promesa bat aurkitzen ditugu.

Erromatarrei 6:17: Baina Jainkoari eskerrak, bekatuaren esklabo zinetenok, irakatsi zaizuen ikasbidea bihotzez onartu duzue

Irakaspen preziatuak

Deuteronomioa 9:1-3: «Entzun, israeldarrok! Jordan ibaia igaroko duzue gaur, zuek baino herri handi eta ahaltsuagoen lurraldeaz jabetzeko; hiri handiak, zerurainoko harresiz inguratuak ditu lurralde horrek; 2 Anak erraldoiaren ondorengoak bizi dira bertan, altuera handiko jendea. Ezaguna duzue horiei buruzko esaera: “Nork egin aurre Anaken ondorengoei?” 3 Gaur jakingo duzue Jauna zeuen Jainkoa aurretik igaroko zaizuela Jordan zeharkatzean, su kiskalgarria bezala: berak suntsitu eta makurraraziko ditu herri horiek zuen aurrean, eta zuek beren lurraldetik bota eta deuseztatu egingo dituzue berehala, Jaunak hitzeman bezala.

***it*-1 133**
Anak

Ezohiko tamaina zuen arraza. Hauek Kanaango mendialdean bizi ziren eta beste batzuk kostaldean, batez ere, hegoaldean. Anakdarren hiru gizon ospetsu, Ahiman, Xesai eta Talmai, Hebronen bizi izan ziren denbora batez (Zen 13:22). Hemen ikusi zituzten lehen aldiz 12 espioi hebrearrek anakdarrak. Espioietako hamarrek oso txosten beldurgarria eman zuten. Uholdearen aurreko nefilimen ondorengoak zirela esan zuten eta, beraiekin alderatuz, hebrearrak «matxinsaltoak» besterik ez zirela (Zen 13: 28-33; Dt 1:28). Hain altuak ziren, erreferentziatzat erabiltzen zituztela beste herrietako gizon altuak deskribatzeko. Adibidez, emitarrak eta refatarrak. Beraien indarrak, seguruenik, ondorengo esaera sortu zuen: «Nork egin aurre Anaken ondorengoei?» (Dt 2:10, 11, 20, 21; 9:1-3).

Biblia-irakurketa

Deuteronomioa 10:1-22: «Orduan, Jaunak esan zidan: Ebaki lehengoak bezalako beste bi harlauza; egin zurezko kutxa ere, eta zatozkit mendira. 2 Hautsi zenituen harlauzetan idatziak zeuden hitz berberak idatziko ditut; gero, kutxan sartuko dituzu. 3 «Akazia-zurezko kutxa egin, lehengoak bezalako bi harlauza ebaki eta, harlauzak eskuetan nituela, mendira igo nintzen. 4 Aurreko txandan bezala, zuek mendi barrenean bildurik zeundetela Jaunak suaren erditik adierazi zizkizuen hamar aginduak idatzi zituen harlauza berrietan eta

niri eman zizkidan. 5 Gero, menditik jaitsi eta kutxan sartu nituen, eta han gelditu ziren, Jaunak agindu bezala. 6 «Israeldarrak, Bene-Jaakango putzuetatik abiaturik, Moserara iritsi ziren. Han hil zen Aaron, eta bertan ehortzi zuten. Aaronen ordez, beraren seme Eleazar izan zen hurrengo apaiz. 7 Handik Gudgodara joan ziren eta Gudgodatik Jotbatara, erreka asko duen lurraldera. 8 Orduan bereizi zuen Jaunak Lebiren leinua, eginkizun hauek ezarriz: itun-kutxa eraman, Jaunaren aurrean liturgi zerbitzua bete eta beraren izenean herria bedeinkatzea, gaur egun ere egin ohi duten bezala. 9 Horregatik, lebitarrek ez dute ondare-zatirik beste israeldarrek bezala, Jauna baitute beren ondare, Jaunak gure Jainkoak hitzeman dien bezala. 10 «Bigarren aldian ere, berrogei egun eta berrogei gau egin nituen mendian eta entzun egin zidan berriro Jaunak, eta ez zintuzten suntsitu. 11 Gero, esan zidan: Ea, jar zaitez herriaren buru eta abiatu arbasoei zin eginez agindutako lurraldeaz jabetzera. 12 «Eta orain, israeldarrok, zer da Jaunak zeuen Jainkoak eskatzen dizuena? Errespeta dezazuela Jauna zeuen Jainkoa, haren bideetan ibiliz, hura maitatuz eta zerbitzatuz bihotz-bihotzez eta gogo osoz, 13 eta bete ditzazuela ematen dizkizuedan Jaunaren agindu eta legeak, horrela jokatuz zoriontsu izan zaitezten. 14 Izan ere, Jaunarenak zeuen Jainkoarenak dira zeru zabalak, lurra eta bertako guztia. 15 Baina Jaunak zuen arbasoak bakarrik izan zituen atsegin eta maite, eta segidan zuek, haien ondorengoak, hautatu zintuzten herri guztien artean, gaur egun gertatzen denez. 16 «Ezarri ituna bihotzean eta ez izan burugogor aurrerantzean, 17 Jauna, zuen Jainkoa, jainkoen Jainko eta jaunen Jaun baita, Jainko handi, ahaltsu eta beldurgarria; ez du alderdikeriaz jokatzen, ez eroskeriarik onartzen: 18 justizia egiten die umezurtz eta alargunari, eta maite du etorkina, jatekoa eta janztekoa ematen dizkiolarik. 19 Maita ezazue, bada, etorkina, zeuek ere etorkin izan baitzineten Egipton. 20 «Errespetatu Jauna zeuen Jainkoa eta zerbitza ezazue, bizi zaitezte berari atxikiak eta zin egin beraren izenean. 21 Bera da zuen Jainkoa eta bera duzue goretsiko, bera baita ikusi dituzuen gauza handi eta beldurgarriak egin dituena. 22 «Hirurogeita hamar lagun besterik ez ziren zuen arbasoak Egiptora iritsi zirenean; orain Jaunak zeuen Jainkoak zeruko izarrak bezain ugari egin zaituzte.

KRISTAUON BIZIMODUA

Bideojokoak: benetako txapelduna al zara?

Efesoarrei 5:15, 16, *NW*: Así que tengan muchísimo cuidado de no comportarse como tontos, sino como sabios, 16 aprovechando el tiempo de la mejor manera, porque los días son malos.

«Zentzuduna izan alkoholari buruzko erabakiak hartzean»

Esaera Zaharrak 23:20: Ez zaitez elkartu zurruteroekin, ezta tripazainekin ibili ere;

Esaera Zaharrak 23:29-35: Nor ari da aieneka? Nor zotinka? Nor liskarretan? Nor kexuz? Nor da arrazoirik gabe kolpatua? Nork du begirada lausotua? 30 Ardoa edaten akaberarik ez duenak, edarien dastaketara emanak. 31 Ez begiratu ardoari, gorri-gorri kopan distiratsu dagoenean, goxo-goxo sartzen da eta. 32 Azkenean, ordea, sugeak bezala egiten

du kosk, sugegorriak bezala zizta. **33** Gauza bitxiak ikusiko dituzu, zentzugabekeria handiak pentsatu eta esango; **34** itsaso zabalean bazeunde bezala sentituko zara, mastaren puntan kulunka. **35** «Jo naute, baina ez dut minik –esango duzu–, gogor zigortu naute, baina ez naiz konturatu. Noiz esnatuko ote naiz? Gehiago eskatuko dut berriro!»

1 Korintoarrei 6:9, 10: Ez al dakizue bidegabeek ez dutela Jainkoaren erreinua iritsiko? Ez engaina zeuen buruak! Lizunek, sasijainkozaleek, adulteriogileek, emakeria-zaleek, sodomitek, **10** lapurrek, diruzaleek, mozkorrek, izen onaren kentzaileek eta iruzurgileek ez dute Jainkoaren erreinua iritsiko.

1 Korintoarrei 10:23, 24: «Dena zilegi da»; bai, baina ez da dena komenigarri. «Dena zilegi da»; bai, baina ez da dena elkartea eraikitzeko lagungarri. **24** Ez bedi inor bere buruaren onaren bila ibil, besterenaren bila baizik.

1 Timoteori 5:23: Ez dezazula ura hutsik edan, ardo pittin batekin nahasturik baizik, zeure urdailarengatik eta sarritan dituzun ondoezengatik.

Erromatarrei 13:1-4: Gizaki orok izan behar du ezarritako agintarien menpeko. Ez baita aginterik Jainkoarengandik ez denik, eta oraingo agintariak ere hark ezarriak dira. **2** Beraz, agintarien menpeko egiten ez denak Jainkoaren erabakiari egiten dio aurka, eta hari aurka egiten dionak beraren epaia izango du. **3** Agintedunak ez dira beldur izatekoak ongi jokatzen denean, gaizki jokatzen denean baizik. Agintarien beldurrik gabe bizi nahi al duzu? Joka ezazu ongi, eta haien onespena izango duzu, **4** Jainkoaren zerbitzari baitira, zuri ongi jokatzen laguntzeko. Gaizki egiten baduzu, ordea, izan beldur, zigortzeko ahalmena ez baitute alferrik. Izan ere, Jainkoaren zerbitzari dira, justizia egin eta gaizkileak zigortzeko.

Erromatarrei 6:16: Badakizue, norbaiten menpean jartzen bazarete esklabo bezala berari obeditzeko, obeditzen diozuen haren esklabo egiten zaretela: bekatuari obeditzeko bada, heriotzara zoazte; Jainkoari obeditzeko bada, berriz, salbaziora.

ELKARRIZKETA EREDUAK

Hasiera 1:28: Eta bedeinkatu egin zituen, esanez: «Sor itzazue umeak eta ugaldu, bete lurra eta izan haren nagusi; mendera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean narraska dabiltzan piztia guztiak».

Isaias 55:11: berdin nire ahotik irtendako hitza ere: ez da niregana itzultzen bere eragina izan gabe, baizik eta nik nahi dudana egiten du eta nik ezarritako helburua betetzen».

Besterik esan ezean, Bibliaren aipuak *Elizen Arteko Biblia*tik hartu dira: © Itzulpena: Elizen Arteko Biblia Elkartea; Sociedad Bíblica de España; c/ Santa Engracia 76; 28010 Madrid; www.sociedadbiblica.org. Beste biblia-itzulpenak erabili direnean horrela adierazi dira: Jaime Kerexetaren *Euskal Biblia* (*EB*) eta *New World Translation of the Holy Scriptures* (*NW*). *NW* biblia-itzulpena frantsesez (*Traduction du monde nouveau*) eta gazteleraz (*Traducción del Nuevo Mundo*) ere eskuragarri dago.
© 2021 Watch Tower Bible and Tract Society of Pennsylvania